



**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA**

**PROBA LIBREA**

**KOMUNIKAZIO-EREMUA**

**EUSKARA ETA LITERATURA**

**2013KO AZAROA**

**IZEN-DEITURAK:** \_\_\_\_\_

**SINADURA:**

**JARRAIBIDEAK**

1. Irakurri arretaz testua eta galderak.
2. Saiatu galdera guztiak erantzuten.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, birpasatu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
7. Gaizki erantzundakoek ez dute puntuazioa jaitsiko.



Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun.

## Alice Munrok irabazi du Literaturako Nobel saria

Alice Munro idazle kanadarrak (Ontario, 1931) jasoko du 2013ko Literaturako Nobel saria. Gaur eguerdian jakinarazi du Suediako akademiak aurtengo irabazlearen izena, eta kontakizun laburrak idazteko duen gaitasuna azpimarratu du.

“Errealismo psikologikoa eta argitasuna ezaugarri dituen kontaketa harmoniatsuagatik da ezaguna” Munro, Akademiak azaldu duenez.

Eguneroko bizitzan arakutzen duela-eta, Munro "Kanadako Txekhov" izendatu izan dute, baina berak beste hainbat idazle aipatu izan ditu berarengan eragin dutenen artean: Katherine Anne Porter, Flannery O'Connor, Carson McCullers, Eudora Welty, James Agee eta bereziki William Maxwell.

Kazetaritza eta ingeles ikasketak hasi zituen arren, lehen aldiz ezkondu zenean utzi zituen. Lehen istorioak nerabea zenean idatzi zituen, baina lehen obra 1968an kaleratu zuen: *Dance of the Happy Shades* izeneko kontaketen bilduma bat.

Haren obra behin baino gehiagotan saritu da, eta Kanadan fikziozko lanei ematen zaien saririk garrantzitsuena, Governor General's Award izenekoa, hirutan jaso du. Besteak beste, honako lan hauek argitaratu ditu: *Lives of Girls and Women*, *Who Do You Think You Are?*, *The Moons of Jupiter*, *Friend of my Youth*, *The View from Castle Rock* eta *Too Much Happiness*. Azken hori euskaraz irakur daiteke, [Meetok](#) argitaletxeak kaleratu baitzuen iaz *Zorion handiegia* izenburuarekin, Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga eta Aiora Jakak itzulita.

Literaturako Nobel sariak zortzi milioi suediar koroa ematen ditu (922.000 euro), eta 2012an Mo Yan txinatarrak irabazi zuen. Aurretik, hauek irabazi dute: Tomas Tranströmer (2011, Suedia), Mario Vargas Llosa (2010, Peru), Herta Müller (2009, Errumania), Jean-Marie Gustave Le Clézio (2008, Frantzia) eta Doris Lessing (2007, Iran).

**Berria.info 2013-10-10 (moldatua)**



**1. Markatu laukitxoetan baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren: (1 puntu)**

|  | E | G |
|--|---|---|
| 1. Orain dela asko argitaratu dira A. Munroren lanak euskaraz.   |   |   |
| 2. Sei liburu baino ez ditu argitaratu Alice Munrok.   |   |   |
| 3. Suediako Akademiak adinagatik ere saritu du A. Munroe, oso zaharra<br>debez, laster hil daitekeelako. |   |   |
| 4. Alice Munrok hiru sari lortu ditu.  |   |   |
| 5. Unibertsitatean ikasi eta lanean aritu zen.   |   |   |
| 6. Alice Munro oso idazle originala da bere kontakizunetan, ez du inoren<br>eraginik.                    |   |   |
| 7. Txekov-ekin konparatzen dute Kanadan jaio delako.   |   |   |
| 8. Behin baino ez da ezkondu.  |   |   |
| 9. Narrazio errealistak eta harmoniaz beteak dira Alice Monroeren kontaketak.                            |   |   |
| 10. Nerabea zen lehenengo liburua argitaratu ziotenean.  |   |   |

**2. Hiru hauetatik zein da testuaren laburpen egokiena? (1 puntu)**

- Idazle kanadar bati zortzi milioi suediar koroako saria eman diote.
- A. Munrori Nobel saria eman dio Suediako akademiak narrazio laburren maistra izateagatik.
- '*Zorion handiegia*' ipuin bildumagatik eman diote Nobel Saria A. Munrori.

**3. Zein da testuaren helburua? (1 puntu)**

- A. Munroren biografia kontatzea.
- Nobel Sariaren ezaugarriei buruzko informazioa ematea.
- Literatura Nobel saria irabazi duen idazleari buruzko informazioa ematea.

**4. Bilatu testuan honako hitz hauen baliokideak: (1,5 puntu)**

Adibidez: Data bat: **1968an**

- Enpresa baten izena: .....
- Nazionalitate bat: .....
- Idazle hispanoamerikar bat: .....
- A. Munroeren jaioterria: .....
- Euskaraz argitaratutako A. Munroren liburua: .....
- Bi adjektibo: ..... / .....
- Izenordain bat: .....
- Euskal itzultzaile baten izena: .....



**5. Bilatu hitz hauen sinonimoak testuan: (0,5 puntu)**

1. plazaratu: .....
2. ahalmen: .....
3. nabarmendu: .....
4. miatu: .....
5. narrazio: .....

**6. Berridatzi esaldi hauek. Horretarako, erabili letra lodiz ematen den hitza. (1 puntu)**

Eguneroko bizitzan arakatzen duela-eta, Munro "Kanadako Txekhov" izendatu izan dute.

**Bait-**

.....

Kazetaritza eta ingeles ikasketak hasi zituen arren, lehen aldiz ezkondu zenean utzi zituen.

**Ba- ere**

.....

Azken hori euskaraz irakur daiteke, *Meetok* argitaletxeak kaleratu baitzuen.

**Izan ere**

.....

**7. Hizkuntza erabiltzen. Deklinabidea eta aditza. Hutsuneak bete (1 puntu)**

Bernardo Atxaga euskal idazle ospetsua da. Ez du oraindik Nobel saria irabazi, baina sari asko eskuratu ditu dagoneko. Hemen duzu berari buruzko albiste bat.

Testu horretako hutsuneak bete behar dituzu. Falta diren deklinabide atzikizkiak honela markatzen dira: ....; eta aditzak, honela: \_\_\_\_.

**Bernardo Atxaga eta Xi Chuan, Europako eta Asiako poesiaz**

Bernardo Atxaga idazle gipuzkoarra eta Xi Chuan poeta txinatarra elkar.... egongo \_\_\_\_ gaur Bilboko Bidebarrieta liburutegiko ekitaldi areto...., Europako zein Asiako poesi.... hitz egiteko. «Joan-etorriko bidaiak» izeneko ekitaldi.... 19:30.... hasiko \_\_\_\_, eta, amaitzeko, bi egile.... poem.... irakurriko dira. Bertaratutako pertson.... aldi bereko itzulpen zerbitzu..... bitartez jarraitu ahal izango \_\_\_\_ topaketa.



## 8. IDAZLANA (3 puntu)

Mezu hau jaso duzu epostan gaur goizean. Irakurri arretaz, eta erantzun iezaiozu. Kontuan hartu behar dituzu lagunak egiten dizkizun galderak eta mezuan adierazten dituen ideiak. Zure testuak, gutxienez, **120 hitz** eduki behar ditu.

**Nork:** Kepa

**Nori:** Ander

**Gaia:** Literatur Saria

*Ander, aspaldiko!*

*Telefonoz zurekin hiz egin nahian ibili naiz, baina ezin! Telefono zenbakia aldatu duzu ala?*

*Gogoratzen duzu elkarrekin idatzi genuen beldurrezko narrazio hura? Ba, pasa den hilabetean, Donostian antolatu zuten literatur lehiaketara aurkeztea otu zitzaidan.*

*Kontua da lehenengo saria eman diotela! Sinestu ezinik nabil. Badakit ez nizula ezer esan, eta gainera, ez zarela horrelako lehiaketen zale. Baina pentsatuko nuen nik, bada, mamuen ipuin inozo hura, ia txantxetan idatzia, halako arrakasta izango zuenik?*

*Bidaia bat oparitzen digute: Kanariar Uharteetara, astebete. Zer deritzozu? Noiz eta nola joan gintezkeen pentsatu behar dugu, saria hiru hilabete barru iraungiko da eta.*

*Gainera, argitaratu egin nahi dute Euskal Herriko eskoletan banatzeko. Argitaletzekoek gurekin hitz egin nahi dute egile eskubideak direla eta. Noiz etor zitezke Donostiara?*

*Erantzunaren zain naukazu, irrikitan.*

*Besarkada handi bat*

*Kepa*

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....



.....  
.....  
10.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

15.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

20.....  
.....  
.....  
.....